

## Debarreneko Adinekoen Kontseiluaren webgunea



Komunikazioa  
eta informazioa

## Debarreneko Adinekoen Kontseiluaren webgunea

---

Debarreneko Adinekoen Kontseiluaren webgunea/bloga eta Zahartze Aktiborako Ataria: osasuna, segurtasuna, partaidetza eta etengabeko ikaskuntza. Adineko guztiei zuzenduta dago, zahartzaro aktiboa, osasungarria eta atsegina izateko tresnak eskura izan ditzaten. Aldizka eguneratzen da.

### 1. Erakunde sustatzaileak

Debarreneko Adinekoen Kontseilua

### 2. Erakunde mota

Pribatua

### 3. Xede taldea

- Adineko biztanleria
- Aholkulariak
- Adinekoen elkarteak
- Herritarrak oro har

### 4. Lurralde eremua

Tokikoa, lurraldekoa, Euskadi, Estatua eta nazioartea

### 5. Egoera

Abian jarrita (garatzen)

## 6. Etiketak

Zahartze aktiboa, digitalizazioa, partaidetza, prestakuntza

## 7. Helburuak

Debarreneko Adinekoen Kontseiluaren webgunean elkartearen historia, txostenak, dokumentuak eta abar biltzea, eta, zehazki:

- Atarian eskuragarri jartzea zahartze aktibo eta osasungarrirako eta ongizate eragile izateko behar den informazio guztia.
- Teknologia berrien bidez, zahartzearen arazoen inguruko komunikazio, informazio eta jakintza eredu sortzea.
- Kontseilua ageriko egitea.
- Ahalduntzea sustatzea.

## 8. Metodologia

Ikusirik Debarreneko Adinekoen Kontseiluak sortutako informazio guztia euskarri batean jaso eta kide berriei transmititzeko beharra eta zahartze aktibo eta osasungarrirako informazioa bilduko duen ataria sortzeko beharra, webgune bat sortzea erabaki genuen.

Dirulaguntzarik ez dugunez eta gastu guztiak gure kontu direnez, 2007an KZgunearekin jarri ginen harremanetan, edukiak kudeatzeko sistema eta komunitateentzako ostatu birtuala eskaintzen baitzuen. Ikastaroa egin ondoren, programa aplikatzen hasi ginen, mugatua bazen ere. 2007ko uztailan jarri genuen martxan.

2015ean KZguneak zerbitzu hori kendu nahi zuen, eta beste sistemaren bat bilatzea gomendatu ziguten. Doako beste programa informatiko batzuk aztertu ondoren, WordPress aukeratu genuen. Beste ikastaro birtual bat egin genuen, KZgunearen bidez, eta berriro hasi ginen. Programa horrek webgune gisa eta blog modura ere funtzionatzen du.

Programak eskaintzen dituen aukerak ikusita, eduki gehiago eskaintzea erabaki genuen. Hala, zahartze aktibo eta osasungarrirako interesgarriak eta beharrezkoak iruditzen zaizkigun estekak sartu ditugu.

Ataria sortzeko lan guztia Kontseiluko adinekook egin dugu: edukiak kudeatu eta diseinatu, egin, inplementatu eta mantentze lanak. Erabili ahala ikasi dugu horretarako tresnen funtzionamendua.

## 9. Alderdi berritzaileak

Ezaguna da dokumentazioari euskarria ematearen arazoa, baita zahartzaroan sortzen den informazio beharra ere. Baina berritzailea da bi alderdi horiek uztartzea, ia guztia kontuan hartuta, eta funtsezko dokumentazioa balioztatu eta erabiltzea. **Zalantza guztiak proiektu bakarrean biltzea berritzailea da.**

- Zer? Kontseilu baten webgunea eta zahartze aktibo eta osasungarrirako beharren inguruko erantzun guztiak ematen dituen ataria.
- Zergatik? Beste eredu integratzailek ezagutzen ez dugulako.
- Zertarako?
  - o Kontseiluaren eduki guztiaren euskarri izateko eta interesatuta daudenen eskura jartzeko.
  - o Zahartze aktibo eta osasungarrirako erantzun guztiak biltzeko, alderdi guztiak kontuan hartuta: osasuna, segurtasuna, partaidetza eta etengabeko ikaskuntza.
  - o Kontseilua ageriko egiteko.
  - o Adinekoei ahalduntzen laguntzeko.
- Nola? Merkatuan dauden doako tresnak aztertuz, horiek erabiltzen ikasiz eta martxan jarritz. Lehenengo KZgunearen tresna, eta gero WordPress. Estekarik egokienak bilatuz eta gure webgunera ekarriz.
- Zenbat?
  - o 0 euro. Kosturik gabe erakunde publikoentzat.
  - o «70 aldiz 7» ordu ere sareko estekak behatzen eta aztertzen, egokienak aukeratu eta webgunean jartzeko.
- Noiz? Debarreneko Adinekoen Kontseilua eratu eta handik gutxira heldu zioten proiektuari, 2007aren hasieran. Lehenengo bertsioa 2007ko uztailean jarri zuten abian.
- Nork? Adinekoen Kontseiluko talde batek. Kide guztiak 65 urtetik gorakoak ziren eta ez zuten informatikako ezagutza berezirik.

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

Webgunera egindako sarrerak edo bisitak neurtzen dira.

Ebaluazioa urtero egiten da Adinekoen Kontseiluaren osoko bilkuran.